

## EUSKARAREN ERABILPEN ZUZENA IPARRALDEKO KOMUNIKABIDEETAN

*Egoitza, (Bilbo), 1994.02.26*

*Luzien Etxezaharreta Galzagorri*

Arratsaldeon guziei:

Eskertu nahi nituzke gogoeta sail honen antolatzaileak, lehendabizi ene gomitatzeagatik: analisia sakonetan baino gehiago ohitua bainaiz eguneroko ekoizpen lanetan eta ene hurbilketa eskas baten arriskua hartu dutelakotz.

Eskerrak ere, honekin azpimarratzen baituzue Ipar Euskal Herriko komunikabideen garrantzia, denak bizirik, indartsu eta kalitate onekoa nahi dugun euskararen osasunaren aldeko borrokan. Gure hiru probintzietan ere agertu da azken hogeitun urteetan Gutenberg eta Mac Luhanen galaxiek ez zutela elgar tratatzen, baina osagailu premiazoak zirela, lankide, euskararen alorretan.

Hitzaldi labur honetan agertu nahi nuke euskararen egoera Iparraldeko komunikabideetan gero euskara horren kalitate edo hobetzeari buruz, araudiei egokitzeari buruz egiten diren gaurko urratsak, eta azken puntu batean, oharpen zenbaitzuk gure burukomin ohikoez, euskalkien edo batuaren oreka kontu horietaz.

Piarres Xarrittonek iaz Maiatz elkarteak Baionan antolatu mahain-guru batean egin oharpena errepikatu nahi nuke lehendabizi: Ipar Euskal Herriko idazle ia guziak kazetaritzan ibilitakoak direla. Horrek komunikabideen garrantzia agertzen du euskararen bizian.

Mende honen hasieratik argi da *Eskualduna* astekaria zer harrobia izan den: Jean Etxepare medikua Elizalde "Zerbitzari" eta anitz hortik datoz.

### PRENTSA IDATZIA

Prentsa idatziak tokia emaiten dio euskarari molde arras ezberdinetan.

*Euskaldunon egunkaria* Iparraldean sartua da, hedapen oraindik ahularekin, baina 800 bat irakurle egunero hunkiz. Euskararen erabilpenak hor ez du egokitze berezirik egiten nahiz "Iparraldeko estilo" zerbait nabari den kazetariengandik erabilpen zuzena nire ondoko hizlariak azalduko duen bideekin.

*Herria* astekaria gaur aldizkari banatuena du euskarak. 3.000 harpidedunek, hedapen zabala duela, erakusten dute. Lafittek duela 50 urte *Eskualdunaren* jarraitzailea sortu zuen. Iparralde baserriar baten islada-tzaile zenak azken urte hauetan berrikuntzaren bidea hartua du. Euskararen ortografia batua hartu zuen 60.eko hamarkadaren ondarrean CH "X" idatziz bereziki; edo kontsonanteen ondotikako Hak gutituz.

Piskanaka, Euskaltzaindiaren gomendioak zuhurki aplikatuz, abiadura iduriz egokian, arau berriak jarraitzen ditu, Emile Larre euskaltzainaren gidaritzapean. Baigorriar gisartartuak testu guziak berak zuzentzen ditu astearteroko lan astun eta zehatzean. Lau urte hauetan berak dioenaz "aditz batua" erabiltzen du astekariak. Hargatik Zuberoako artikulua zuberotarrez egoiten dira.

*Sud ouest* egunkariak astero euskarazko artikulua bat dakar Jamattitt Dirassarek idatzia. *Herrian* "egun eta bihar" idazten duenak, arau berdina dauka hor. XIX mendetik nagusi den "nafartar-lapurterra" darabil, gaurko euskara batuaren bidean.

Astekari politiko abertzaleek, *Enbata*, *Ekaitza*, *Ager* edo *Har hitzak*, *laborari ELB*koak euskarari toki ematen diote, herena edo laurdena. Horko euskara, erran daiteke, besteen frekuentzia berdintsuan dela: Euskaltzaindiaren arauetarik ibiliz, baina egilearen arabera. Laburbilduz, nahiz hitz ez zehatza izan "bakoitza bere moldean" dabilela, erran daiteke.

*Le miroir de la soule* Mauleko astekari eta Zuberoako informazio aldizkari bakarrak artikulua soil bat dauka zuberotarrez baina ortografia osoki frantsesarenari jarraikia aldakuntza gogorik agertu gabe.

Udal talde batzuen aldizkariak badaude, *Kutzu*, Baionan, Bidarten, Donibane Lohizunen, maiz abertzale edo ekologistek animaturik. Erabiltzen den euskara gaurko araei egokitua daukatela bakoitzaren arabera, erran daiteke.

Beste aldizkari noizbehinkakoek euskara erabiltzen dute.

Iaz Alliot-Marie ministroak eta Poulou deputatuak argitaratuan, gaurko euskararen norma gutienezkoen ignorantzia sakonena agertu zuten hargatik, hemen pudorez ezin aipatzukoa.

Parropia talde batzuek beren aldizkaria zabaltzen dute, Mezularien antzekoak. Horko euskara *Herriakoaren* bide beretik doa.

Dena den asko argitaratzen da Iparraldean: denetan euskara sartu da, gutienezkoa gehienetan, baina presentzia bada bederen edonon.

## IRRATIAK

Euskararen erabilpen ohargarriena sortu du irratiak, urte gutiz iraultza barnakorra eraginez euskararen entzute eta erabilerari. Irrati euskaldunetaz jendeak zuen gosea argian jarri da.

Jadanik 50.eko hamarkadaren ondarrean Miarrizetik hasi igandee-tako *Radio Cote Basquek*, Roger Idiart, Larzabal edo Pantxo Etxezaharretak animatzen zutenak, mezaren aurretik izugarrizko arrakasta lortu zuen. *Gure irratiak* 1981.eko abenduaren 24ean, *Irulegiko irratiak* ondoko udaberrian eta *Xiberoko botzak* udazkenean euskararen saio nagusiak ireki zizkioten.

Zerbitzu (omen) publikoak eskaini eguneroko bost minutuetarik kasik egun osorainoko euskararen entzuteko ahala eskaini zen, hobeki erran, Jendeak eraiki zuen bere nahikariz. Euskal hitzari, musikari kulturari, euskalkiei, bapatean mundu hertzianoaren ateak zabaldu zitzaizkien.

Gaur beste irratiak eskaini tokia aski murrizta da. *Radio France Pays Basquek* astean bost egunez 45 minutuko “euskal magazine” bat eskaintzen du, 13,30etan. Angeluko irratiak AFMek, aste honetan lehendabiziko aldiz euskal emankizun bat hasiko du. Beste irratiak ez dute euskara tutik erabiltzen gaur.

“Zerbitzu publikoaren irratiak” RFPBen, ez da euskararen erabilpeneko norma izpirik, bertako hizlaria jaun eta jabe da (andere eta jabe). Gaur Naroa Gorostiaga, ikastolaren bideetarik ibili denak euskara “zuzenago” baten garantia ematen digu.

Euskal irratiak ez da norma berezirik aplikatu “erabili behar den” euskarari buruz. “Euskara on” baten beharra maiz aipatu arren, ez da inoiz zehazki zuzendu. Maulen zuberotarra erabiltzen dute, Garazin Nafarroa Behereko euskalkia eta Baionan, *Gure Irratia* daiteke gehienik hurbiltzen dena Euskaltzaindiaren arauetara. Herri-irradi horiek jende asko mintzaarazi eta berrikerari ugari erabiliz Iparraldeko Babel zerbaiten oihartzun dira.

## TELEBISTA

ETB da Iparraldean euskara gehienik zabaltzen duena. Gure aldeko albisteak hedatzen ditu 12,45etan 5 minutuz eta 18,30etan 7 minutuz.

Gaur hor langile den Gillome Irigoienek erran diguna “tokiko euskararen” erabiltzeko aginduarekin uzten du.

*France 3* kateak sei egunez 1,30” eskaintzen ditu egunean errepor-taia bat zabalduz euskaraz. Zerbitzu publikoaren eskaintza oso murrizta da dagoenez.

## EUSKARAREN KALITATEA

Halako kantitate handian zabaldu ekoizpenentzat, kalitatearen arazoa gaur puntu nagusi bilakaturik da. Alde batetik euskara berarengatik, baina ere kalitatezko gauzen gosea delakotz komunikazio munduan. Iparraldeko kasuan eskas negargarriak ageri dira Badirudi orain arte ez dela euskararen erakundeen interesik izan horretarako. Edo bederen beste urgentziek gaia izkutatu dutela. Irratien mailan kokatzen da, ene ustez, arazo nagusia. Masa fenomeno bilakatu delakotz irrati bidez euskararen zabaltzea, gaia hurbiletik begiratzea beharrezkoa da.

*Xiberoko botza* irratian, aitortzen dutenez, “bakoitza bere aldetik dabil, etxean maiz ikasi euskararekin, maiz AEKn hobetuarekin”. Hitz ezezagunen bilatzeko Aita Lhanderen aspaldiko hiztegia edo berriki Junes Casenavek argitaratuak erreferentzi dira. Allande Sokarros irakaslea, eskupean den aholkulari dohainezkoaren lanetan dabil.

*Irulegiko irratian* arazo berdina da. bakoitza bere aldetik dabil euskararen hobekuntzarako. Hori hargatik beharrezkoa dela aitortzen dute. “Formakuntza baten beharra” onartzen dute. Euskalkie begira, denak erabiltzen eta doi bat nahasten dira. Herrietako berrikerari edo elkarte asko mintzo baitira, gaurko euskara mintzatuaren oihartzun nabaria da.

*Gure irratia* ditu euskararen hobetzeko grinak gehienik agertu hasieratik. Iparralde guzira hedatuz, euskalki ezberdinen, euskaldun berrien, Hegoaldiarren hitzen kurutzatziak egin ditu. Kakofonia bat ez esatekotan, piskanaka, hitz ezberdinen, sinonimoen erabilera zabaltzen lagundu du. Hala ere, beste irratietan bezala, jendeak hitza euskaraz hartzearen premia nagusitu da orora gainetik. Baina “Euskara bildu” bat da sortu hala ere “de facto”, itzulpen lan ugariak ere hala beharrez lagundurik.

Prentsa idatziaren erabilera, Hego Euskal Herrikoarena bereziki, euskararen batasun batera bultzatzaile gertatu da. Mattin Larzabal kazetariak agertzen duenez “irratia hitz berriak laster inposatzen ahal ditu”.

Irratien arteko euskarari buruzko politika batuaren beharra aspaldian agertu da. Zorigaitzez bakoitzaren ezin bizizko lanek, lanak ito lan-

gile eskasak, denbora gutiegik urratsa ttikiegiak baizik ez dituzte egitera utzi.

Erabilpen zuzenago bati buruz ohargarria da gure Irratian Xipri Arbelbidek egiten duen “euskara” emanalditxo.

UEUK, irratiek eskaturik, hiru urte hauetan irratilarien formakuntzarako ikastaroak moldatzen ditu.

Iparraldeko kazetari euskaldunen elkarte baten egiteko xedea obratzen hasi zen duela hamar urte. Honen helburuetarik zen “euskararen hobekuntza”, baina elkarteak ez zuen iraun.

## **OHARPEN BATZUK**

Kalitate hobeagoko euskara baten erabiltzeko gogo argia da Iparraldeko komunikabide euskara erabiltzen dutenetan. Hamar urte hauetan horretarako tresna oso guti baizik ez da izan. Denek, bestalde, Euskaltzaindiaren egitura zerbaitek hori zuzendu dezan, onartzen dute.

Prentsak jaisten duen eguneroko presio eta abiadura ezagutzen duenok, badakizue ziur nolako behar ugari erantzun behar den, maiz berehala. Iparraldetik ikusita, behintzat, argi eskatzen da laguntza baten bidean irekitzea.

Pentsatzekoa da Ipar Euskal Herrian, euskaraz komunikatzen duten guziek “euskara batu” baten beharra onartzen dutela. Hargatik horri buruzko pausu beharrezkoetaz ere mintzo da gaur. Henri Duhau beskoiztarren lanak agertu nahi du herriko, ahozko euskara, historiatik etortzen zaigun amaren euskara horri kasu eman behar diogula gehiago. Urratsak behar bezala eginez “batuari” buruz. Euskara nagusi bat, bereziki Hegoaldeko kale hizkuntzak eta partez komunikabideek zabaltzen dutena ez genuke nahi, Iparraldeko berezitasun eta aberastasunen iresle itsua izan dadin.

Iparraldetik ikusirik, Hegoaldeko pausuak erraldoiak agertzen dira, euskararen plazaratzeko abiadura handiarekin. Hegoaldeko erbia jauzika dabil gu aldiz dordoka edo apo harmatu astiroak gintzaizkelarik. Ez da hala eta gainera alegiaren bukaera badakizue: erbiak galdu zuela punpa ero gehiegi eginez. Astiro, bide bazterreko liliak usainduz, belar gozoak jan eta liserituz, apo harmatuak zuhurtzia zerbait agertu zuen.

Iparraldeko komunikabideetan euskararen erabilpena zuenaren nahia indar handiz dago, batasunari buruz itzulia. Aholkuen, laguntzen eta elkarlanaren denborak etorriak dira. Ez da komunikabide handi edo txi-

kirik bakoitzak bere tokia baitaukalakotz, indartsuenak bestea lehertzea. harreman ezkor eta kaltegarria da, azkenean “heriotzeak berdintzen baititu handi txipiak”, Etxahun Irurik zioenaren arabera. Iparraldeko komunikabideek euskararen bizi irakaspen gogoetagarri eskaintzen digutela, uste dute.

Milesker zuen harrerarengatik.